

# IVAP

HERRI ARDURALARITZAREN  
EUSKAL ERAKUNDEA

Erakunde autonomiaduna  
Organismo Autónomo del



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**



**Etika Publikorako Batzordea**  
**Comisión de Ética Pública**

# Eusko Jaurlaritzako Etika Publikorako Batzordearen Memoria

2015





# IVAP

HERRI ARDURALARITZAREN  
EUSKAL ERAKUNDEA



Erakunde autonomiaduna  
Organismo Autónomo del

**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

# Eusko Jaurlaritzako Etika Publikorako Batzordearen Memoria

2015

© Euskadiko Autonomia Elkarteko Administrazioa

Argitaratzailea: Herri Ardularitzaren Euskal Erakundea

ISBN: 978-84-7777-481-5

Lege Gordailua: SS - 248-2016

Inprimatzailea: Grafo, S.A., Avda. Cervantes, 51-edificio 21 - 48970 Basauri (Bizkaia)

# Sarrera

Eusko Jaurlaritzako Etika Publikorako Batzordeak (EPB) 2015. urtean zehar egindako lana erregistratzea da memoria honen xedea. Gobernu Kontseiluak 2013ko maiatzaren 28an onartu eta urte bereko ekainaren 3an EHAAn argitaratutako Etika eta Jokabide Kodearen (EJK) 16.3 puntuan aurreikusten da memoria egin behar dela, eta hain zuzen ere puntu horren arabera EPBri dagokio «Etika eta Jokabide Kodea betetzen dela egiaztatzeko urtero egingo den txostena lantzea». Kodearen 16.5 puntuari jarraituz, txostenean gomendioak eman daitezke, eta txostena bera Gobernu Kontseiluari aurkeztu behar zaio, jakinaren gainean egon dadin eta hark ontzat ematen dituen gainontzeko ondorioak izan ditzan.



# Aurkibidea

1. Esperientzia positibo eta aitzindaria . . . . .	9
2. EPBren osaeraren aldaketa . . . . .	13
3. EPBren eskariz EJKn egindako aldaketak . . . . .	15
4. Hedapen- eta prestakuntza-jarduerak . . . . .	17
5. Memoriak jorratutako aldi aztertutako gaiak . . . . .	19
a) Gai-motak . . . . .	28
b) Planteatutako gaiak eta hartutako erabakien ildo orokorrak . . . . .	29
I. Hautaketa/kontratazio-prozesuak (2) . . . . .	29
II. Jarduerako interes-gatazka (4) . . . . .	31
III. Merkataritza-prozesu bateko epai kondenatzailea/Irismenagatiko prozedura bateko erantzukizuna/Kargu publikodun baten inputazioa (6) . . . . .	37
IV. Goi-kargudun baten egoera, orain duen erantzukizunarekin zerikusirik ez duen gai bati dagokionez (1) . . . . .	46

<b>6. Ondorioak eta gomendioak</b> . . . . .	49
<b>Aurrenekoa.</b> EJKren 15.5 puntuaren aldaketa puntuala egitea, Prozedura Kriminalaren Legean orain dela gutxi egindako aldaketetara egokitzeko. . . . .	49
<b>Bigarrena.</b> EJKren testu bategina prestatu eta argitaratzea, kode hori erabili behar dutenek bertsio kontsolidatu bat izan dezaten bertan agintzen dena hobeto ezagutu eta betetzeko . . . . .	51
<b>Etika Publikoko Batzordeak aztertutako kasuak (2015ean)</b> . . . . .	53



# 1

## Esperientzia positibo eta aitzindaria

Beste behin ere errepikatu behar dugu EPBko kideentzat benetan positibo izaten ari dela kodearen aplikazio-eremuko pertsonak egindako kontsulten eta kodea urratu izanaren aurka jarritako salaketek bidez EJKren betearazpena kontrolatzeko esperientzia.

EJKn aurreikusten den zintzotasun instituzionalerako sistemak agerian uzten du Eusko Jaurlaritzak benetan landu nahi duela ekintza politikoa-ren dimentsio etikoa eta lanketa hori funtsezko elementua dela herritarrek instituzioekiko galdutako konfiantza berreskuratzeko. Kodeak eta bertan aurreikusten den jarraipen- eta ebaluazio-sistemak ez dute bermatzen —eta ezin dute bermatu— zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoan ematen dituzten goi-kargudunek eta parekatuek ez dutela izango inolako portaera etikoki gaitzesgarririk, baina EJKn ezarritako sistemak jokabide etikorako estandar altua ezartzen die Euskadiko kargu publikodun autonomikoei, eta haien portaerak ikuskatzeko mekanismo objektibo eta egingarria taxutzen du. Horiek erakunde publikoen zintzotasuna eta irudia hobetzen laguntzen dute, zalantzarik gabe, eta, horrekin batera, herritarrek erakunde publikoekiko eta haien buru diren pertsonetikiko duten konfiantza areagotzen.

EJKren hitzaurrean agerian geratu zen eredu sinboliko eta deklaratiho hutsa, pertsonen portaeran benetako eraginik ez duena, gairiditzeko asmoa; izan ere, kargu publikodunen portaeran benetan eragitea eta kodea erreferentzia generiko hutsa ez izatea dela helburua adierazten baita, hitz hauek aditzera ematen dutenez: «arau-hausteren bat izan

dela egiaztatzen bada, barneko jarraipen-sistema bat aktibatuko da, eta horrek ekar dezake langilea kargugabetzea edo, kasuan kasu, eskumeneko organoei zenbait gomendio egitea, gertatutako okerrak zuzen dai-tezen».

Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoan ezarritako zintzotasun instituzionalerako sistemak lortu duen hedapen eta onarpen publikoaren eraginez, 2015eko ekaineko hauteskundeen ondoren eraturako zenbait udal- eta foru-gobernuk bide horri jarraitzea erabaki dute, eta etika- eta jokabide-kodeak onartu dituzte. Kode horiek segimendua eta ebaluazioa egiteko mekanismoak dituzte, betetzen ote diren kontrolatzeko eta ko-deetan aurreikusita dagoena ahalik eta ondoen bete dezaten haien apli-kazio-eremuetako kargu publikodunek.

Erakunde horien artetik, **Arabako Foru Aldundia, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Bilboko Udala** nabarmendu behar dira, EJKren oso an-tzeko eredia diseinatu baitute. Lehenengoak irailaren 3ko 477/2015 Erabakiaren bidez onartu zuen Sektore Publikoko Kargu Publikodu-nen eta Ordezkarien Gobernu Onerako Kode Etikoa (2015eko irailaren 11ko ALHAO, 107 zk.) ([http://www.alava.net/BOTHA/Boletines/2015/107/2015\\_107\\_04078\\_E.pdf](http://www.alava.net/BOTHA/Boletines/2015/107/2015_107_04078_E.pdf)), Gipuzkoako Foru Aldundiak eta haren zu-zentasun instituzionalerako sistema, Diputatu Kontseiluak 2016ko martxoaren 1ean onartu zuena ere bada eta, Bilboko Udalak, berriz, Udalbatzaren 2015eko azaroaren 24ko ohiko osoko bilkuran onartu zuen Jokabideari, Gobernu Onari eta Kalitate Institutuzionalarekiko Konpromisoari buruzko Kodea.

([http://www.bilbao.net/cs/Satellite?c=Page&cid=1279148413525&language=eu&pageid=1279148413525&pagename=Bilbaonet%2FPage%2FBIO\\_contenidoFinal](http://www.bilbao.net/cs/Satellite?c=Page&cid=1279148413525&language=eu&pageid=1279148413525&pagename=Bilbaonet%2FPage%2FBIO_contenidoFinal))

Hiru kasuetan, kodeek ezarritako jokabide-arauen betearazpena kontro-latzeko organo bana eratzea aurreikusten da. Organo horiek kanpoko ordezkariak edukiko dituzte, eta eskumen ugari izango dituzte kexa eta kontsultei erantzuteko eta proposamenak egiteko. Arabako Foru Al-dundiak Etika Publikoaren Batzordea eratzea erabaki du, eta batzorde horretan honako hauek daude, besteak beste: «bi pertsona, esperien-tzia, gaitasun eta ospe profesional frogatua daukatenak sektore publi-koko nahiz pribatuko erakundeen etika, zuzenbide eta gobernantzare-kin zerikusia duten arloetan». Gipuzkoako Foru Aldundiak Erakundearen

Etika Batzordea sortuko du, bost kideetatik hiru «Foru aldunditik kanpo-koak» izango dituen, nork bere lan-esparruan «esperientzia eta prestigio aitortua» duten pertsonak. Bilboko Udalak, berriz, Etika eta Gobernu Onaren Batzordea eratu du, eta «ospe handiko bi aholkulari» ditu kideen artean.

Esparru publikoan onartutako etika-kodeek sinesgarritasuna izan dezaten, oso garrantzitsua da jarraipen eta ebaluaziorako mekanismo sinesgarri eta eraginkorrak edukitzea. Orain dela gutxi agerian geratu da hori, hain zuzen ere indargabetuta geratu denean Gobernu Kideen eta Estatuko Administrazio Orokorreko Goi Kargudunen Gobernu Onerako Kodea onartzen duen Ministroen Kontseiluaren 2005eko otsailaren 18ko Erabakia, urte bereko martxoaren 3ko Aginduaren bidez argitaratua (2005eko martxoaren 7ko BOEn argitaratu zen agindu hori, 56 zenbakian). Azken memorian esan genuen bezala, kode hura aitzindaria izan zen Espainiako estatuan, eta hark markatu zuen gero administrazio askok hartu zuten norabidea. Honela zioen bertako laugarren puntuak:

« 1. Urtero, Ministroen Kontseiluak Administrazio Publikoetako ministroaren txostenaren berri edukiko du. Txostena printzipio etikoaren eta jokabidezkoen balizko urradurei buruzkoa izango da, eta lortu nahi den helburua horiek urratzea ahalbidetu dezaketen prozedura eta jarduerak aztertzea da, administrazioaren eta erakunde publikoaren erabakien objektibotasuna bermatzeko egokitzat jotzen diren neurriak proposatzearekin batera.

2. Ministroen Kontseiluak egoki jotzen dituen neurriak hartuko ditu, kodearen printzipioak urratzen badira».

Estatuko Administrazio Orokorreko goi-karguan aritzea arautzen duen martxoaren 30eko 3/2015 Legeak, 2015eko apirilaren 20an indarrean sartuak, espresuki indargabetu du erabaki hori (c xedapen indargabetzailearen bidez), eta, beraz, baliorik gabe geratu da erabakian onartu zen kodea.

Kodea indarrean egon den hamar urteetan pilatutako esperientzia ebaluatze helburuz, seguru asko, Kongresuko talde parlamentario batek informazio zehatza eskatu zion gobernuari, aldi horretan zehar Ministro

Kontseilura bidalitako txostenei eta hark hartutako erabakiei buruz. Gobernaren erantzuna ezin adierazgarriagoa izan zen. Hau adierazi zuen:

« Governuko Kideen eta Estatuko Administrazio Orokorreko Goi Kargudunen Gobernu Onerako Kodearen laugarren puntuan aurreikusita dauden txostenetatik bakar bat ere ez da egin [...], kode horretako etika- eta jokabide-printzipioak urratuz gero bakarrik egin beharko litzatekeelako horrelako agiririk. Hortaz, halako ez-betetzerik gertatu ez denez, ez da beharrezkoa izan erabaki horrekin zerikusia duen txostenik egitea».

Horrelako baieztapenek nahasmena eta frustrazioa eragin dezakete herritarrengan; herritarrentzat halakoak nahiko arrazoi izan daitezke instituzio publikoekin duten konfiantzarik eza berresteko eta arduradun publikoek zintzotasun- eta prestutasun-irudia emateko hartzen dituzten neurrien kontra duten prebentiozko jarrera justifikatzeko. Administrazio publikoetan ezartzen diren zintzotasun instituzionalerako sistemen sinesgarritasuna halako urritasunik ez egotearen mende dago, hein handi batean.

# 2

## EPBren osaeraren aldaketa

2015eko otsailean, Daniel Innerarity-k EPBko lehendakariari adierazi zion berak betetzen duen kanpoko batzordekide kargua beste norbaitek hartzea nahi zuela. Eskaera hori ez zuen inolaz ere egin ez zegoelako ados batzordea egiten ari zen lanarekin, baizik eta ekainaren 14ko udal-, foru- eta erkidego-mailako hauteskundeetarako hautagai izateko eskatu ziotelako. Proposamen hori onartzeko asmoa zuen, eta, bere ustez, hori egiteak politikaren eta alderdiaren ikuspuntutik duen pisu publikoa ez zen ondo uztartzen EPBko kanpoko bokal izatearekin, erantzukizun hori izateko beharrezkoa delako independentzia eta inpartzialtasuna. Bestalde, bokal horrek adierazi zuen bazekiela bere ordezkari beste norbait jartzeak ez ziola kalterik egingo organoaren funtzionamendu onari, urte eta erdi baino gehiago lanean aritu ostean bukatuta zegoelako batzordea martxan jartzeko hastapen-fasea eta une hartan finkatze-faseari ekin behar zitzaiolako. Bere ustez, bigarren fase horretan ez zuen zertan eragin negatiborik izan behar batzordearen osaeran aldaketa bat egiteak.

Aldaketa egitea onartu ondoren, 2015eko martxoaren 17ko Gobernu Kontseiluan erabaki zen ordezkaria jartzea. Data hartatik aurrera<sup>1</sup>, Txetxu Ausín Díez-ek hartu zuen Daniel Innerarity-k EPBko kanpoko bokal gisa zuen lekua. Txetxu Filosofian doktorea da Euskal Herriko Unibertsitatetik eta Ikerketa Zientifikoen Kontseilu Goreneko (CSIC) Filosofia Institutuko

---

<sup>1</sup> Kargua utzitako bokalak otsailaren 19ko 4/2015 Erabakia sinatu zuen, eta kargua hartutako bokalaren parte-hartzea apirilaren 21eko 5/2015 Erabakiarekin gauzatu zen.

zientzialari titularra ere bai. CSICeko Ikasketa Logiko-Juridikoen Taldea (JuriLog) eta Etika Aplikatuen Unitate Elkartua zuzentzen ditu, gainera. Horrez gain, irakasle gonbidatua da hainbat unibertsitatetan, eta baita GLOBERNANCE Gobernantza Demokratikoaren Institutuko ikerlaria ere.

Hauxe da, beraz, EPBren oraingo osaera:

- **Lehendakaria:** Josu Iñaki Erkoreka Gervasio (Herri Administrazio eta Justiziako sailburua).
- **Bokala:** Andres Zearreta Otazua (Funtzio Publikoko sailburuordea).
- **Bokala:** Elisa Pérez Vera.
- **Bokala:** Txetxu Ausín Díez.
- **Idazkaria:** Maite Iruretagoiena Iburguren (IVAPeko zuzendaria).

Eskerrak ematen dizkiogu Daniel Innerarity-ri EPBko kide izan den bitartean egin duen lanagatik; bere ekarpen beti kualifikatua funtsezkoa izan da organoa martxan jartzeko eta organoak bere lan-norabidea aurkitzeko.

Jakina, EPBren osaeran egindako aldaketak ez du haren izaera eta estatusa aldatu, autonomia funtzional osoz eta hierarkia-lerrotik datozen agindu edo jarraibideen mende egon gabe jarduten jarraitzen baitu.

# 3

## EPBren eskariz EJKn egindako aldaketak

EJK dokumentu ireki eta malgua da; gizarteak kargu publikodunei haien jokabidea une bakoitzeko zintzotasun- eta etika-eskakizunetara moldatzeko egiten dien eskaerara moldatzeko eta egokitzeko dago pentsatua. Hala adierazten du EJKren hitzaurreak, kode ireki gisa eratu dela esaten duenean: «Izan ere, sartutako jarraipen-sistemaren bitartez kodearen edukia urtean behin aztertu nahi da eta adierazpenak hobetu, baita jokabide edo portaera jakin batzuk sartu ere, hain zuzen, egokitzen joko direnak, gizartearen bilakaeraren eta eskakizunen arabera, Goi Mailako Zuzendaritza Betearazlearen osotasun-irudia indartzeko eta, hartara, euskal herritarrek erakundeengan duten konfiantza sendotzeko».

EJKren 16.3 puntuan adierazitako aurreikuspena erabiliz —puntu horretan gaitasun hau ematen zaio EPBri: «Etika eta Jokabide Kodean egin beharreko aldaketak proposatzea Gobernu Kontseiluari»— gomendio hauek eman genituen, besteak beste, 2013ko urritik 2014ko abendurako aldiari dagokion memorian:

- a) EJK-ko 3.2 puntuan aurreikusitako neurri-sorta zabal dezala Eusko Jaurlaritzak, atzematen diren ez-betetzeen ondorioak modulatu ahal izateko gertakari egiaztatuen ahalik eta larritasun handien edo txikienarekin, esparru horretan ere proportzionaltasun-printzipioa betez.
- b) Eusko Jaurlaritzak beste puntu bat sartzea EJKn, 3.5 puntua, eta bertan argi eta garbi adieraztea kodeak bere egiten dituela Kargu

Publikodunen Jokabide Kodea eta haien Interes Gatazkak arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legearen II. kapituluan jasotako balio, printzipio eta jokabide guztiak.

- c) Eusko Jaurlaritzak EJK-ko 2.1 eta 2.2 puntuetan jasotako hartzaileen zerrenda aldatzea eta ekainaren 26ko 1/2014 Legearen 2. artikuluko edukira egokitzea.
- d) Eusko Jaurlaritzak EJKren 16.4 puntua aldatzea, EPB-k urtean guxtienez egin beharreko bilera presentzialen kopurua batera murrizteko.

Gobernu Kontseiluak 2015eko martxoaren 17an hartutako erabakiaren bidez, EPB-k eskatutako aldaketa guztiak egitea erabaki zuen gobernua, eta Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariaren martxoaren 17ko 19/2015 Ebazpenaren bidez argitaratu ziren aldaketa horiek, 2015eko martxoaren 23ko EHAAn.

a) puntuan adierazitako gomendioari dagokionez —gomendio hori zen irekiena—, EJKren 3.2 puntu berriari emandako edukia egokia dela iruditzen zaigu, eta gure proposamenaren helburuarekin bat datorrela.

Onartutako testuak ezartzen duenez, kargu publikodunek eta parekatuek EJK-ko aurreikuspenak ez betetzeak tarteko den edo diren pertsonak berehala kargutik kentzea eragin dezake, besteak beste; eta, horrez gain, «egiaztatutako gertakarien larritasunarekin bat datozen bestelako neurri batzuk hartzea, zehapen izan gabe eraginkorrak izango direnak kargu publikodunen jardunbidea alderdi etikotik zuzentzeko, artezteko eta hobetzeko».



# 4

## Hedapen- eta prestakuntza-jarduerak

Azken memoriako «Ondorioak eta Gomendioak» kapituluan, «EPBk EJK hartzaileen kolektiboaren artean hedatzeko ahalegina areagotzea» gomendatu genuen, «une bakoitzean eraginkorrenak diren hedapen eta prestakuntzarako mekanismoez baliatuta» horretarako. Horrez gain, positiboki baloratu genuen sei hilero EJKri atxikita dauden langileentzako hizaldiak antolatzeke ekimena.

2015ean zehar, EJKri atxikitako langileentzako bi jardunaldi eta EJKrekin zerikusia duten gaiei buruzko udako ikastaro ireki bat antolatu ditu Eusko Jaurlaritzak, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen bidez.

Lehenengo jardunaldia martxoaren 25ean egin zen. Bartzelonako Pompeu Fabra Unibertsitateko Zientzia Politikoko eta Administraziooko katedraduna den Carles Ramió Matas-ek eman zuen, eta «Administrazio moderno baterako lidergo politiko ona» izan zuen hizpide.

Bigarrena urriaren 14an egin zen, eta Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko Etikako katedradun emeritua den Victoria Camps Cerverak eman zuen, «Etika publikoa eraikitzea» izenburuarekin.

Udako ikastaroari dagokionez, ekainaren 15, 16 eta 17an egin zen ikastaro hori, Euskal Herriko Unibertsitateak urtero antolatzen dituen ikastaroen barruan. Izenburu hau izan zuen: «Ustelkeria politikoaren aurkako borroka: estatuaren eta herritarren tresnak».



# 5

## Memoriak jorratutako aldi- aztertutako gaiak

2015. urtean zehar, EPBk hamahiru erabaki hartu ditu. Aurreko urtean baino bi gehiago eta 2013an baino bat gutxiago. Kasu gehien-gehienetan —hamahirutik hamabitan—, EPBk kontsulta gisa aztertu ditu heldu zaizkion gaiak. Gai bakar bat iritsi zen guregana salaketa anonimo baten ondorioz.

Kasua azaltzeko modua	Kasu-kop.
Kontsulta	12
Salaketa (anonimoa)	1
<b>Guztira</b>	<b>13</b>

Zehatz-mehatz kontsultei dagokienez, kontsulta gehienak interesdunek egin zituzten. Hala gertatu zen bederatzi kasutan. Salbuespen gisa, bi kasutan hirugarren batek egin zuen kontsulta (kontsultaren eraginpeko pertsonarekin zerikusi zuzena zuen eta bera ere ukitzen zuen beste kargu publikodun batek), eta, kasu batean, berriz, Eusko Legebiltzar-  
rak.

Kontsultagilea	Kasu-kop.
Interesduna	9
Zerikusidun eta ukitutako beste kargudun bat	2
Eusko Legebiltzarra	1
<b>Guztira</b>	<b>12</b>

EPBk 2015. urtean zehar aztertu eta ebatzitako kasu bakoitzaren fitxa aztertu aurretik, aipagarriak diren bi joera egiaztatu direla aipatu behar da modu orokorrean.

- Zertxobait gutxitu dira interes-gatazkekin zuzenean edo zeharka zerikusia duten gaiak eta modu generikoan kargu publikodunen eta parekatuen bateraezintasunen araubidea deitu genezakeenarekin zerikusia dutenak.
- Kargu publikodunak prozesu penaletan edo zehapen-prozedura administratiboetan inputatuta egotearekin zerikusia duten gaiak (EJKren 15.5 puntuak) aurkeztu dira lehenengo aldiz, eta halakoak segituan ugaritu dira gainera (sei kasu erregistratu dira).

Azter dezagun bakoitza, labur-labur.

### **a) Interes-gatazkekin eta bateraezintasunen araubidearekin zerikusia duten gaiak argitzea**

EJK-k, kargu publikodunei eskatu beharreko atalase etikoa ezartze aldera, hainbat aldiz jotzen du indarrean dagoen legera, eta interes-gatazkei eta bateraezintasunen araubideari buruzko atalak dira gehien aipatzen dituenak. EJKren 11.3 puntuak, adibidez, «kargua bete bitartean beti saihestu beharreko interes-gatazka posible»ekin zerikusia duten jokabideen zerrenda egiten du, eta argi eta garbi ezartzen du aipatzen dituen jarraibideek ondorioak izango dituztela, «inola ere baztertu gabe legeak kasu bakoitzean jasotako jokabideak eta haietan bildutako betebeharrak». Are gehiago, jarraibide horietako 7. puntuak berriz ere legera jotzen du honekin zerikusia duen guztirako: «Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokor eta Instituzionaleko kargu publikodun batek kargua hartu baino lehen edo ondoren izandako lanbide-jarduerak direla eta sor daitezkeen interes-gatazka».

Bateraezintasunen araubideari dagokionez, EJKren 14. puntuak hau dio: «Kargu publiko bat betetzen dutenek arduraldi osoa eta eskusiboa eman behar diote dagozkien funtzioak betetzeari, aplikatu beharreko legedian jasotakoaren arabera».

Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta haien Interes Gatazkak arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legea (JKIGL) onartu aurretik, EJK-k «le-geari», «legeak ezartzen duenari» edo «aplikatu beharreko legediari» egi-ten zizkion erreferentziak arlo horietan indarrean zegoen arautegiari egi-ten zizkiola ulertu behar zen. Eta Euskadin manu-multzo mugatu, osatu gabe eta zaharkitua genuen aurreko mendeko laurogeiko hamarkadako urteetatik indarrean; hauxe funtsean: Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legea (JL), Euskal Herriko Autonomia Elkartearen herri-ihar- dunean aritzeagatikako elkartueizinei buruzko abenduaren 20ko 32/1983 Legea eta, behin-behineko langileei dagokienez, Gobernu Kontseiluaren 2002ko uztailaren 30eko Erabakia<sup>2</sup>.

Multzo arauemaile hori bateraezintasunen arlorako benetan eskasa eta interes-gatazken esparrurako hutsune handikoa zenez<sup>3</sup>, bi esparru horie-kin lotutako zalantza etikoak zituzten kargu publikodunek EPBren babesa bilatu zuten 2013. urtean eta 2014. urtearen zati handi batean, eta EPBk hainbat erabaki hartu behar izan zituen, indarrean zeuden txatal arau-emaileetan bilaketa eginez eta zuzenbide konparatua estandar etikotzat hartuta arauetako hutsuneak zuzenbide horri erreferentzia eginez estaliz.

Baina JKIGL indarrean sartzeak nabarmen aldatu du egoera. Lege hori onartuta, erregulazio eguneratu eta osoago bat dago orain Euskal Auto- nomia Erkidegoko sektore publikoko goi-kargudunen eta parekatuen ba- teraezintasunen ordenamendu juridikoan, bai eta haien interes-gatazke- tan aplika daitekeen ordenamendu juridikoan ere. Ondorioz, interesdunak legearen errekerimenduetara egokitu daitezke eta, hortaz, EJKren erreke- rimenduetara ere bai, EJK-k lege horretara jotzen baitu eta hark ezartzen dituen administrazio-prozedurei heltzen baitie. Horren guztiaren ondorioa da JKIGL onartu denetik EJKren aplikazio-eremuko pertsonek kasu haue-

---

<sup>2</sup> EPBk tresna arauemaile horiek nola erabili dituen jakiteko, ikusi, besteak beste, 2014ko urtarrilaren 23ko 13/2013 Erabakia.

<sup>3</sup> Ikusi, esate baterako, nola txertatu ziren interes-gatazken arloko arau-hutsune batzuk 2013ko azaroaren 4ko 6/2013 Erabakian, 2013ko abenduaren 13ko 9/2013 Era- bakian eta 2013ko abenduaren 30eko 12/2013 Erabakian.

tan bakarrik eramaten dituztela bateraezintasunak eta interes-gatazkek EPBra, batzorde horrek bere iritzia eman dezan: indarrean dagoen arautegia aplikatuta konponbide garbirik ez dutenean eta JKIGLren artikuluetakoak baino zorrotzagoak diren jarraibide etikoak behar dituztenean. Mota horietakoak dira 2/2015, 3/2015, 10/2015, 11/2015 eta 12/2015 erabakietan ebatzitako gaiak.

### **b) Kargu publikodunak prozesu penaletan edo zehapen-prozedura administratiboetan inputatuta egotearekin zerikusia duten kasuak.**

EPBk 4/2015 Erabakian egin behar izan zion aurre, lehendabiziko aldiz, EJKren 15.5 puntuak aipatzen den kasu bati; puntu horrek ezartzen duenez, «kargu publikodun eta parekatuak edozein prozesu penaletan zein administrazio-zehapenetan inputatuz gero, karguari dagozkion egiteko publikoak betetzeari lotutako gertaeren ondorioz, edota garrantzi publiko berezia duten ekintzen ondorioz», horren berri eman behar zaio Etika Publikorako Batzordeari. Kasu jakin hartan, EPBk uko egin zion EJKren puntu horrek ezarritakoa aplikatzeari, baina kontu bera behin eta berriz azaldu da 2015. urtean zehar. Zehazki, 5/2015, 6/2015, 7/2015, 9/2015 eta 13/2015 erabakien bidez ebatzitako gaietan azaldu da.

Aipatutako erabaki guztietan EPBk funtsean dotrina berbera aplikatu du, iritsi zaion kasu bakoitzaren inguruabar bereziek eragiten dituzten ñabardura desberdinekin, jakina. Dotrina horrek oinarri hauek ditu funtsean:

- EJK arautzen duen oinarritzko jarraibideari egiten zaion salbuespen puntual bat da 15.5 puntuko araua. Kodeak EHAAr argitaratuz geroztik ditu ondorioak (2013ko ekainaren 3an argitaratu zen), eta 2. puntuak zehaztutako kargu publikodunentzat soilik du indar loteslea, kargu publikodun horiek legez ezarritako prozeduraren arabera izendatuak izan eta kodearekiko atxikipena formalizatu ondoren.
- Horiek horrela, arauak ondorioak izango ditu kargu publikodunek eta parekatuek izendatuak izan aurretik gauzatutako egintzengatik eta baita EJK onartu aurretik gauzatutakoengatik ere, betiere inputazioa «garrantzi publiko berezia duten ekintzen ondorioz» egiten bada.
- EJKren 15.5 puntuak aipatzen duen «edozein prozesu penaletan zein administrazio-zehapenetan» esaldia zentzu hertsian interpre-

tatu behar da, arauak murriztu egiten baitu gai publikoetan parte hartzeko oinarrizko eskubidea, Espainiako Konstituzioak 23. artikuluan jaso, eta, esparru horretan, Auzitegi Konstituzionalak behin baino gehiagotan adierazi baitu Konstituzioan jasotako oinarrizko eskubideei eta askatasun publikoei dagokienez, horiek gauzatzearekin lotutako mugak «modu murriztailean ezarri, interpretatu eta aplikatu» behar direla (ikus, adibide gisara, Auzitegi Konstituzionalaren urriaren 30eko 151/1997 Epaia, 51 OJ).

- Horren ondorioz, araua ez da aplikagarria, besteak beste, ez jurisdikzio-ordena zibileko edo merkataritza-arloko jurisdikzio-ordenako auzitegi batek hartzen dituen neurrietan —hala nabarmendu genuen 4/2015 Erabakian— eta ez Kontu Auzitegiaren epaitzeen atalean izapidetutako prozedura batean erabakitzen diren neurrietan ere —hala adierazi genuen 7/2015 erabakian—.
- Ez dago planteamendu bakar eta unibertsal partekaturik adierazten duenik prozesu penal batean edo zehapen-prozedura administratibo batean murgilduta dagoen norbaitek prozesuko zer unetan egin behar dion uko betetzen duen kargu publikoari, eredugarritasun-printzipioak bultzatuta.
- EAEko esparru instituzionalan, zaila da gai horretan erreferentzia gidari modura erabil daitekeen irizpide argiren bat ezarri duten erakunde publikoak topatzea. JKIGL-k, arlo horretako arau nagusiak, ez du ezer esaten gaiari buruz. Arau horren lehen xedapen gehigarriko bigarren atalak adierazten duen moduan, arau hori zati batean da lurralde historikoetako foru-aldundietako eta haien sektore publikoko kargu publikodunei aplikatzekoa, baina arau horrek gaiaren inguruan ezer arautzen ez baldin badu ere, foru-erakunderen batek bere irizpide propioa landu du aztertzen ari garen esparru honetan, eta hemen adierazteko modukoa iruditzen zaigu.
- Izan ere, alderdi politiko zenbaitek berriki onartutako etika-kodeek —esaterako, PSOE alderdiak 2014ko urriaren 10ean onartu zuen bere etika-kodea, eta kode horrek dimisioa aurkezteko betebeharrak ezartzen die haren kargu publiko eta organikodunei, «prozedura penal batean ahozko judizioa abiarazten denean haien aurka» (5.2 artikulua)— ezarritako ildoari jarraitu diote Bizkaiko Batzar Nagusiek, 2015eko urtarrilaren 13an hartu zuten erabakiaren bidez. Erabaki horrek adierazten du lurralde historiko horretako foru-aldundiak hau egin behar duela: «kargu publikoak kargugabetu behar ditu, baldin eta ahozko judizio bat abiarazten baldin bada haien aurka ustelkeriarekin lotutako delituengatik». Ez dugu ildo hori ja-

rraitzen duen bestelako xedapenik ezagutzen euskal erakunde publikoetan.

- Horiek horrela, kontuan hartu behar da oinarrizko zer hiru aukera dauden aurreko puntuetan, erabakitzeke, berariaz, prozedura penalen edo zehapen-prozedura administratiboen izapidetzearen zer unetan den bateraezina eredugarritasun-printzipioa kargu publiko bat betetzearekin, baldin eta karguduna ikertua izaten ari baldin bada —lehen aukerak inputazioaren unea dela adierazten du, bigarrenak ahozko judizioa abiarazten den unea dela, eta, hirugarren aukerak, berriz, kondena-sententzia edo zehapen-ebazpena ematen den unea dela—, eta, hasiera batean eta irizpidea kasu jakin bakoitzera moldatzeko premia ekar dezaketen egoera puntualak alde batera utzita, badirudi bigarren aukeraren alde egitea dela bidezkoa, hura baita hobekien eta proportzioa egokien zaindaz bateratzen dituen eradugarritasun publikoaren eskakizunak eta herritarren eskubideei eta bermeei izan behar zaien begirunea. Eta hori guztia egin beharko litzateke argi eta garbi utzita ez litzatekeela aurreratutako kondena bat edo gerora etorriko den kondena baten aurrerapena izango kargu publikodun bat kaute-la-neurri moduan kargutik kentzea, baldin eta horrelakorik egin beharko balitz, auzitegi eskudunak ahozko judizioa abiatzea erabakitzen duen autoa eman duelako prozedura penal batean, eta bai prebentziozko neurri profilaktiko soilak, eredugarritasunaren balioari indarra emateko erabakitakoa, eta, aldi baterako, pertsona horrek zerbitzuan diharduen erakundearen irudi ona zaintzeko hartutakoa; hori horrela, EJK-ko 15.5 puntuak arautzen duena kontuan hartuta, «prozedura izapidetzean egiaztatzen bada kargu publikodun edo parekatuak ez duela erantzukizunik, errehabilitazio publikoari ekingo zaio. Horrenbestez, kargua kendu baldin bazitzaion, berriro emango zaio, edota dagozkion bitartekoan bidez errehabilitatuko da».
- Onartu berria da martxoaren 30eko 3/2015 Legea, Estatuko Administrazio Orokorreko goi-karguan aritzea arautzen duena (EAOGKL), eta lege horrek kargu publiko batean jarraitzeko aukera ematen die prozedura penal batean edo zehapen-prozedura administratibo batean dauden pertsonen, harik eta kondena-epai irmo bat edo inabilitazio-zehapeneko ebazpen bat ematen ez den bitartean, baina aukera hori ez da bateragarria Eusko Jaurilaritzak 2013ko maiatzaren 28an onartu zuen EJKrekin, alde horretatik estua eta zorrotza baita EJK. Izan ere, politikaren zentzu etikoa berrezartzeko eta he-



rritarrek erakunde publikoengan eta haietan lan egiten duten kargu publikodunengan izan beharreko konfiantza berreskuratzeko egin baita kode hori.

- Beste muturrera joz, kargu publiko batean lanean hasi edo bertan jarraitzea eta eredugarritasun printzipioa bateraezin egiteko unea inputazioaren egintzan ezartzea neurrigabea izan daiteke eta, neurri batean, baita lege-aldaketaren bidez babestu nahi den berme penalen eta prozesu-bermeen kulturarekiko errespetugabea ere. Arrisku hori are garbiago ikusten da urriaren 5eko 13/2015 Lege Organikoa onartua izan ondoren (BOE, 239 zenbakia, 2015eko urriaren 6koa). Lege horrek Prozedura Kriminalaren Legea aldatzen du, prozesuko bermeak sendotzeko eta ikerketa teknologikorako neurriak arautzeko, hain zuzen, eta hau da bere xedeetariko bat: «legeak maiz eta terminologiaren alorrean zehatza izan gabe erabiltzen dituen esapide jakin batzuk kentzea, hala nola «inputatua», hitz hori erabiltzen baita susmo hutsengatik ikertuak diren pertsonak izendatzeko, oraindik zantzu nahikorik izan gabe pertsona horiei ikuspegi judizialek eta modu formalean egozteko zigorgarria den ekintzaren bat egin izana» (zioen azalpeneko V. atala). Epaitegian inputatu gisa deklaratzera deitutako kargu publikodun guztiak sistematikoki kargugabetzea proposatzeko adinako garrantzia eman ez gero inputazioari, horrek zuzenean talka egingo luke gizarteak inputazioaren larritasunari buruz izaten duen pertzepzioa arintzeko hartutako lege-erabakiarekin.
- Bistakoa denez, egindako aukera orokorra —inputatutako kargu publikoduna ahozko judizioa abiarazten denean kargutik kentzea kautelazko neurri gisa— kasuaren inguruabar zehatzen arabera aztertu eta moldatu behar da; izan ere, inputatu gisa deklaratzeko zitzazio judizialak epai zorrotzagoa exiji dezake, inputazioa delitu oso larrien ondoriozkoa baldin bada edo alarma soziala eragiten duten baldintzatan egin bada. Aitzitik, litekeena da ahozko judizioa abiarazteak ez eragitea EPBren gaitzespenik, baldin eta bidezko lehia politikoarekin lotutako jarduerak (hain zuzen ere gure eskumen-esparrutik kanpo daudenek) sorrarazi badute hura.


Gogoeta horietan oinarrituz, hauxe gomendatu diegu erasandako kargu publikodunei 5/2015, 6/2015, 9/2015 eta 13/2015 erabakietan: Justizia Administrazioarekin lankidetzan eta haien erantzukizunak betetzen jarrai dezatela epaile edo auzitegi eskudunak ahozko judizioa abiarazteko autoa ematen duen arte.

Baina jardun judizialen ondorioz ahozko judizioak irekitzen diren kasuetarako, erabaki guztietan, kautelazko neurri gisa, kargu publikoa uzteko aholkua eman diegu gomendio horrekin batera.

Orain arte, erasandako kargu publikodun bakar batek ere ez dio jakinarazi EPBri inputatu gisa deklaratzera deituta dagoen prozedura judizialean ebazpenik eman denik.

## ETIKA PUBLIKORAKO BATZORDEAREN (EPB) ESTATISTIKA

2015: 13 GAIAK



## A) GAI-MOTAK

**I. HAUTAKETA/KONTRATAZIO PROZESUEI BURUZKO GAIAK (2)****GAIA: 1/2015** EITB-K EGINDAKO ENPLEGU-DEIALDI PUBLIKOA.

- EZ ZEN ONARTU SALAKETA.

**GAIA: 2/2015** EUSKO JAURLARITZAK DEITUTAKO HAUTAKETA-PROZESUETAN PARTE HARTZEA.

- EZ DAGO GATAZKARIK, SALBU ETA KONTSULTA EGIN DUENAK EZ DUELA ZAINDU ESLEITUTA DITUEN FUNTZIO PUBLIKOEI ZOR DIEN BEGIRUNEA. EZ DA URRATU EJK.

**II. JARDUERAKO INTERES-GATAZKARI BURUZKO GAIA (4)****GAIA: 3/2015** GARAJE-PLAZA BATEN SALMENTA.

- GATAZKA EGON DAITEKE. ABSTENITZEKO BETEBEHAR HIPOTETIKOA. BESTELA, EJK URRATZEN DA.

**GAIA: 10/2015** DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO PROZEDURETAN JOKATZEKO MODUA.

- EZ DAGO GATAZKARIK. GOMENDIO HAU EMAN DA: KONTSULTAGILEAK ARRETA BEREZIA JAR DEZALA BERE ZEREGINAK BETETZEN ARI DELA HARTZEN DITUEN ERABAKIAK OINARRITZEKO GARAIA. EZ DA URRATU EJK.

**GAIA: 11/2015** BI INTERES PUBLIKOREN ARTEKO GATAZKA.

- GATAZKA DAGO. ABSTENITZEKO BETEBEHARRA EZARRI ZAIO KONTSULTAGILEARI, ETA HIERARKIKOKI HAREN MENPE EZ DAUDEN ETA HAREN EGOERAK UKITZEN EZ DITUEN ORGANOEI, BERRIZ, EBAZTEKO BETEBEHARRA. EZ DA URRATU EJK.

**GAIA: 12/2015** AHOLKULARITZA-ENPRESA BATEKIN KONTRATU PUBLIKO BAT EGITEAK IZAN DITZAKEEN INPLIKAZIO ETIKOEI BURUZ EGINDAKO KONTSULTA, KONTUAN IZANDA ENPRESA HORRETAKO KOLABORATZAILEA DELA KONTRATAZIOAN PARTE-HARTZE ZUZENA IZAN DUEN AHOLKULARITZA-ORGANOKO BATZORDEKO KIDE BAT.

- GATAZKA DAGO. KONTSULTAGILEARI PROPOSATU ZAIO EZ DIEZAIOLA ENPRESA HORRI ESLEITU ADMINISTRAZIO-KONTRATUA, AIPATUTAKO PERTSONA BI LEKUEAN AGERTZEN DELAKO: KONTRATUA ERAGIN DUEN JARDUERA-PROGRAMAREN PRESTAKETAN ZUZENEAN ETA PERTSONALKI PARTE HARTU DUEN ADITU MODURA ETA, ENPRESAREN ESKAINTZAN, «PROIEKTUKO ARDURADUN-KIDE» MODURA.

**III. MERKATARITZA-PROZESU BATEKO EPAI KONDENATZAILEA/IRISMENAGATIKO PROZEDURA BATEKO ERANTZUKIZUNA/KARGU PUBLIKODUN BATEN INPUTAZIOA (6)****GAIA: 4/2015** MERKATARITZA-PROZESU BATEKO EPAI KONDENATZAILE BATEN ONDORIOAK.

- EZ ZEGOEN KONTSULTA EPB-RI EGITEKO BETEBEHARRIK. EZ DA URRATU EJK. EPAIAREN AURKAKO KASAZIO-ERREKURTSOA JARTZEKO GOMENDIOA EMAN DA.

**GAIA: 7/2015** GOI-KARGUDUN BATEK IRISMENAGATIKO PROZEDURA BATEAN USTEZ DUEN ERANTZUKIZUNA.

- EZ ZEGOEN KONTSULTA EPB-RI EGITEKO BETEBEHARRIK. EZ DA URRATU EJK. AUZITEGIAREKIN LAN KIDETZAN ARITZEA GOMENDATU ZAIO, ETA ESKATU ZAIO EPB-RI UNEORO EMAN DIEZAIOLA GAIAREN BILAKAERAREN BERRI.

**GAIA: 5/2015** GOI-KARGUDUN BATEN INPUTAZIOA.

- EZ DA URRATU EJK. AURREKARI BIHURTU DA: AHOZKO JUDIZIOA ABIARAZIZ GERO, ERASANDAKO KARGU PUBLIKODUNA KARGUTIK KENTZEA GOMENDATU DA, KAUTELAZKO NEURRI GISA.

**GAIA: 6/2015** GOI-KARGUDUN BATEN INPUTAZIOA.

- EZ DA URRATU EJK. AHOZKO JUDIZIOA ABIARAZIZ GERO, ERASANDAKO KARGU PUBLIKODUNA KARGUTIK KENTZEA GOMENDATU DA, KAUTELAZKO NEURRI GISA.

<b>GAIA: 13/2015</b>	GOI-KARGUDUN BATEN INPUTAZIOA. ● EZ DA URRATU EJK. AHOZKO JUDIZIOA ABIARAZIZ GERO, ERASANDAKO KARGU PUBLIKODUNA KARGUTIK KENTZEA GOMENDATU DA, KAUTELAZKO NEURRI GISA.
<b>GAIA: 9/2015</b>	GOI-KARGUDUN BATEN INPUTAZIOA. HIRUGARREN PERTSONA BATI BURUZKO KONTSULTA. ● EZ DA URRATU EJK. AHOZKO JUDIZIOA ABIARAZIZ GERO, ERASANDAKO KARGU PUBLIKODUNA KARGUTIK KENTZEA GOMENDATU DA, KAUTELAZKO NEURRI GISA.
<b>IV. GOI-KARGUDUN BATEN EGOERA, ORAIN DUEN ERANTZUKIZUNAREKIN ZERIKUSIRIK EZ DUEN GAI BATI DAGOKIONEZ (1)</b>	
<b>GAIA: 8/2015</b>	SOZIETATE PUBLIKO BATEKO ZUZENDARI KUDEATZAILEREN BATEN EGOERA, PROIEKTU BATI DAGOKIONEZ. ● KONTSULTA EZ DA ONARTU, KARGU PUBLIKODUN HORRI EZ ZAIOLAKO APLIKATU BEHAR ETIKA ETA JOKABIDE KODEA (EJK).

## B) PLANTEATUTAKO GAIK ETA HARTUTAKO ERABAKIEN ILDO OROKORRAK

### I

#### Hautaketa/kontratazio-prozesuak (2)

##### GAIA: 1/2015

(...) @yahoo.com helbidetik bidalitako mezu elektronikoa anonimo bat sartu zen Etika Publikorako Batzordearen (EPB) postontzi elektronikoa. Posta hartan, «EITBk berriki egin duen enplegu-deialdi publikoko plazen esleipenaren emaitzengatik kezkatutako langile-talde batek» batzordeari galdetu zion ea «Etika Kodearen ikuspuntutik» zuzena den «enplegu-deialdi publikoa deitzeko eta egiteko ardura bere gain hartu zuen zuzendaritzako pertsonen lanpostuak esleitu izana, kontuan hartuta pertsona horiek EITBko zuzendaritzaren konfiantzazko pertsonak izateagatik aukeratu zituztela zuzendaritza-karguetarako, zuzendaritza-estrategiak partekatzen dituztela zuzendaritza horrekin eta ia egunero biltzen direla harekin».

#### ERABAKIA

Ez onartzea «EITBk berriki egin duen enplegu-deialdi publikoko plazen esleipenaren emaitzengatik kezkatutako langile-talde batek» **egindako salaketa anonimoa**, EJKren aplikazio subjektiboaren eremutik kanpoko pertsonen eragiten delako.

● EZ ZEN ONARTU SALAKETA.

## GAIA: 2/2015

Interesdunak Etika Publikorako Batzordeari (EPB) galdetu zion ea etikoki bidezkoa den Eusko Jaurlaritzak hainbat lan-poltsa handitzeko deitu dituen hautaketa-prozesuetan berak parte hartzea. Hau galdetu zuen, zehatz-mehatz: prozesu horietan parte hartuta EJK urratzen duen.

### ERABAKIA

Interesdunak kontsultan aipatzen dituen hautaketa-prozesuetan parte hartuz gero, ez dira urratzen kargu publikodunen «arduraldi oso eta eskusiboa»aren printzipioa eta bateraezintasunen araubidea, hautaketa-prozesu batean parte hartzea ez delako ekonomia-, merkataritza- edo industria-jarduera bat gauzatzea, baizik eta Konstituzioaren 23.2 artikulua ematen duen oinarrizko eskubideaz baliatzea; hau da, kargu eta funtzio publikoak betetzea.

Disoziazio organiko garbia dago interesdunak betetzen duen kargu publikoaren eta gustura parte hartuko lukeen hautaketa-prozesuak izapidetu eta ebazteko organoaren artean. Horrez gain, esleituta dituen zereginak —denak (...)kin lotuak— ez dute inolako zerikusi materialik deialdiarekin lotutako administrazio-jardunekin (langileak aukeratzeko deitutako hautaketa-prozesuak kudeatu eta ebaztea). Hori dena kontuan hartuta, interesduna ez da interes-gatazkan jausten bere idazkian aipatzen dituen hautaketa-prozesuetan parte hartuz gero.

Gainera, zintzotasun, eredugarritasun eta bikaintasunaren balio, printzipio eta jokabideak ere ez dira urratzen interesdunak kontsultan aipatzen dituen hautaketa-prozesuetan parte hartuta.

Nolanahi ere, kontsultagileak, funtzio eta kargu publikoak betetzeko konstituzio-eskubidea betetzen ari dela, esleituta dituen zeregin publikoei behar besteko arretarik jarriko ez balie, eta, ondorioz, betetzen duen kargu publikoan duen inplikazioa gutxitzen bada eta karguak eskatzen dizkion betebeharrak eta obligazioak intentsitate gutxiagoz bete-

tzen baditu —hautaketa-prozesuetan ebaluatu beharko dituen materiak prestatu beharri lotutako interferentziengatik edo prozesuetako hautaketa-probetara joan behar izateagatik—, **gerta daiteke bikaintasunari lotutako jokabide-arauak urratzea, eta, oro har, kargu publikodunek eginkizunak «konpromiso handiz» eta «beti ahaleginduz» betetzeko obligazioaren balio eta printzipioekin lotutako jokabide-arauak ere urratzea.**

- EZ DAGO GATAZKARIK, SALBU ETA KONTSULTA EGIN DUENAK EZ BALU ZAINDUKO ESLEITUTA DITUEN FUNTZIO PUBLIKOEI ZOR DIEN BEGIRUNEA. EZ DA URRATU EJK.

## II

### Jarduerako interes-gatazka (4)

**GAIA: 3/2015**

Eusko Jaurlaritzako (...ko) zuzendaria den (...) jaunak Etika Publikorako Batzarde (EPB) honi kontsulta bat egin zion, hain zuzen ere bere emaztearen jabetzako garaje bat, (...ko) auto-zaindegi batean kokatutakoa, ostalaritzako enpresaburu bati saltzearen zilegitasun etikoaren inguruan. Kontsulta horrek batzarde honen irizpena eskatzen du, «balizko eroslearekin dudan lotura profesionala kontuan hartuta; izan ere eroslea (...ko) enpresaburua da eta ni, (...ko) zuzendaria naizen aldetik, [...]organo eskuduna naiz (...) baimen- eta kudeaketa-arloko funtzioak betetzeari dagokionez».

Ondoren, kontsultagileak «informazio gehigarri» gisa gaineratu zuen «balizko eroslearen» intereseko «garaje-plazari» esleitu zaion salmenta-prezioa (...) euro zela. (...) jaunak zehazten duenez, gerta daiteke zenbateko hori ez izatea azken prezioa; izan ere, azken prezioa «egiten den negoziazioaren eta EPB horren oniritziaren ondorio izango da, betiere eragiketaz azkenean aurrera egiten badu».

## ERABAKIA

**Berez**, Eusko Jaurlaritzako (...ko) zuzendaria den (...) jaunaren emaztearen jabetzako garaje-plaza bat (...n) jardun den enpresa baten titularra den erosleari saltzea **ez dago EJKren aurka**, betiere salmenta merkatuaren baldintza hertsien arabera egiten dela egiaztatzen bada.

**Hala ere**, EPB honek ez dauka egiaztatze-erreferentziarik hain puntuala eta askotarikoa den higiezin merkatuaren bilakaeraren berri modu zehatzean izateko; beraz, (...ko) zuzendari gisa esleitu zaizkion funtzioak betetzeko inpartzialtasuna eta independentzia konprometi dezakeen eta/edo karguaren jardunean izan behar duen inpartzialtasun- eta independentzia-irudia konprometi dezakeen balizko moldaketa ezkuturen baten susmoak guztiz baztertzeko, eta azkenean kontsultako xede den garajearen salmenta gauzatzen bada eta garajea kontsultan aipatzen den enpresaburuak erosten badu, enpresaburuak sustatzen dituen espedienteetan edo haren interes-eremuan zuzenean edo zeharka eragina izan dezaketenetan (...) jaunak **ez du inongo erabaki politiko edo administratiborik hartu beharko**, eta, aldiz, nagusi hierarkikoaren esku utzi beharko ditu bere ardurak, edo, bestela, egoera horietako ezeinetan ez dagoen sail edo erakunde bateko beste kargu publikodunen baten esku (EJKren in fine 11. puntua).

● GATAZKA EGON DAITEKE. ABSTENITZEKO BETEBEHAR HIPOTETIKOA.  
BESTELA, EJK URRATZEN DA.

## GAIA: 10/2015

Etika Publikorako Batzordeko (EPB) idazkaritzak sarrera-erregistroa eman zion interesdunak, (...ko) zuzendariak, bide telematiko bidalitako idazki bati. Idazki hartan, interesdunak batzordearen esku-hartzea eskatu zuen, zuzendari gisa zegokion erantzukizuna behar bezala kudeatzen ari zen egiazta zieziaion edo horretarako gomendioren bat eman zieziaion.

Idazkiarekin aurkeztutako dokumentazioarekin batera, interesdunak bere kontsultaren xehetasun gehiago ere eman zituen, eta adierazi zuen be-



rari lotuta dauden prozesuetan etika-kodea urratzen ari ote den jakin nahi zuela.

Erantsitako kontakizunean, kontsultagileak adierazi zuen berak, zuzendari izendatu aurretik, kudeatzaile kargua betetzen zuela (...n) eta, lehenago, (...) fundazioan. Orain betetzen duen kargu publikoa betetzeko, nahi-taezko eszedentzia hartu zuen, baina ez zion utzi kapital-portzentaje baten jabe den bazkide izateari.

Interesdunak dio Administrazio Publikoan lanean hasi aurretik bai fundazioak eta bai (...k) aspalditik jasotzen zituztela diru-laguntza hauek eta ematen zituztela (...k).

Gainera, kontsultagileak esaten duenez, bere erantzukizun publikoa betetzen hasi zenetik ez du parte hartu erakunde onuradunek —(...) barne— izan dituzten onarpen-batzordeetan, bere jatorriarengatik.

## ERABAKIA

**Printzipioz, ezerk ez du eragozten interesdunak Eusko Jaurlaritzako zuzendari-kargua betetzen jarraitzea, bi baldintza hauek betetzen baditu: batetik, (...n) edo autonomia-erkidegoko sektore publikoko diru-laguntzak jasotzen dituen beste nonbaiten duen sozietate-partaidetzak ez gainditzea legez ezarritako muga, eta, bestetik,** bere erantzukizun publikoa betetzen ari dela ematen dituen administrazio-ebazpenek eragin dezaketen partzialtasun, faboritismo eta objektibotasun faltaren susmo guztiak uxatzeko helburuz legegintzaldiaren hasieratik hartu dituen neurri profilaktikoak aplikatzen jarraitzea. Baldintza horiek betez karguan jarraituz gero, ez da urratzen JKIGLa eta ez da hausten EJK.

(...) sozietateak eska ditzakeen diru-laguntzak emateko prozedura guztietan erabat inhibitzeak —gogoan izan behar da kontsultagilea hango kudeatzailea izan zela eta oraindik ere partaidetza duela haren kapitalean— kontsultagileari ez dionez eragozten bere titulartasuneko zuzendaritzak (...) esparruko erakunde pribatuekin lankidetzaz izateko politikaren diseinuan parte hartzea, kontsultagileari gomendatu diogu arreta handiz oinarritu ditzala hartzen dituen erabaki guztiak, bere jardunaren in-

**guruan sor litezkeen susmoak errotik uxatzeko** eta ez arriskuan jartzeko EJKren 6.4 puntuak agintzen duena; izan ere, hauxe ezartzen baitie puntu horrek kargu publikodun eta parekatuei: «erabaki, ebazpen eta ekintza guztiak informazio fidagarrian oinarrituta egongo dira (txostenak, azterlanak, proiektuak, irizpenak), bai eta ebatzi beharreko gaiari lotuta eskura dauden datuen azterketa objektiboetan ere. Horretarako, aholkularitza teknikoa baliatuko da, bitarteko propioen eta, hala egokituz gero, kanpokoen bidez, arazoak modu objektiboan hartzen eta behar bezala konpontzen laguntzeko».

● EZ DAGO GATAZKARIK. GOMENDIO HAU EMAN DA: KONTSULTAGILEAK ARRETA BEREZIA JAR DEZALA BERE ZEREGINAK BETETZEN ARI DELA HARTZEN DITUEN ERABAKIAK OINARRITZEKO GARAIAN. EZ DA URRATU EJK.

## GAIA: 11/2015

Interesdunak, (...ko) zuzendariak, kontsulta egin dio Etika Publikorako Batzarde honi (aurrerantzean EPB), galdetzeko ea etikoki zilegi ote den (...ko) Udalaren eskariz hasten diren espedienteen eta diru-laguntzen eskaeren tramitazioan berak parte hartzea, udal horretan zinegotzia izanik eta (...) Batzordeko lehendakari hautatu dutelarik, kontuan izanda Eusko Jaurlaritzan arlo horren arduraduna eta (...) Batzordeko kidea dela.

### ERABAKIA

**Aldi berean Eusko Jaurlaritzako (...ko) zuzendari kargua eta (...ko) Udaleko zinegotzi eta (...) Batzordeko lehendakari kargua betetzeagatik, interesdunak ez du EJK urratzen, ez daukalako inolako dedikazio oso edo partzialik.**

Interesdunak, kargu publikodunei eta parekatuei beren eginkizunak legearen arabera betetzeko eskatzen zaien oinarritzko arau etikoari jarraiki, eta (...ko) Udalak izapidetzen dituen bere eskumeneko gaietan zuzendari gisa esku hartu behar duenean, bereziki zaindu behar du ez urratzea

HAAJAPEn 28. artikulua, TAOALren 76.ak eta JKIGLren 10.ak parte ez hartzeari buruz ezarritako ezein arau.

Kargudun edo agintari jarduleak parte ez hartzeko agintzen duten HAAJAPEn 28. artikuluan, TAOALren 76.ean eta JKIGLren 10.ean aipatutako egitatezko kasuetako ezeinetan hertsiki sartuta ez egoteak ez du esan nahi interesdunak ez duenik parte hartu gabe egon behar beste zenbait kasutan ere, baldin eta bere esku-hartzeak (...ko) Udalaren aldeko «faboritismo-nahiak eraginda jokatu duelako edozein susmo» piztu badezake.

Interesduna ez dago lotuta EJKren aginduei (...ko) Udaleko zinegotzia izateagatik, baizik eta Eusko Jaurlaritzako (...ko) zuzendaria izateagatik, eta, horrenbestez, aurreko puntuan aipatutako zenbakietan ezartzen den parte ez hartzeko edo inhibitzeko betebeharra gauzatu behar du kargu publikodun autonomiko gisa dagozkion eginkizunak betetzean. **Horregatik, interesdunak, zinegotzi eta (...) Batzordeko lehendakari izendatu zutenetik aurrera, ez du parte hartu behar Eusko Jaurlaritzako (...) Zuzendaritzan izapidetzea egokitzen zaion espedienteetan, baldin eta (...ko) Udalak sustatu baditu edo sustatzen baditu espediente horiek.**

EJK-k eskatzen dituen berme guztiak parte ez hartzearekin bete daitezzen, inhibitzeagatik interesdunak bere ardurapean hartu ez dituen gaiak hierarkikoki bere mende ez dauden organo batzuek ebatzi beharko dituzte, eta, horretarako, nagusi hierarkikoaren esku utzi beharko ditu bere ardurak, edo, bestela, egoera horietako ezeinetan ez dagoen saileko edo erakundeko beste kargu publikodunen baten esku (EJK-ko in fine 11.3 puntua).

- **GATAZKA DAGO. ABSTENITZEKO BETEBEHARRA EZARRI ZAIO KONTSULTAGILEARI, ETA HIERARKIKOKI HAREN MENPE EZ DAUDEN ETA HAREN EGOERAK UKITZEN EZ DITUEN ORGANOEI, BERRIZ, EBAZTEKO BETEBEHARRA. EZ DA URRATU EJK.**

**GAIA: 12/2015**

Etika Publikorako Batzordeko (aurrerantzean EPB) Idazkaritzaren postontzira igorritako mezu elektronikoa batean, interesdunak adierazi zuen

zerbitzu-kontratu bat egin beharra dagoela (...) Legearen 27. artikuluan aurreikusi zen eta gaur egun (...) Dekretuak arautzen duen (...) Aholku Batzordearen Jarduera Plana betetzeko. Interesdunak dioenez, monitorizatorako tresna bat diseinatu, abian jarri eta ebaluatzea izango litzateke kontratu horren helburua.

Haren esanetan, lizitaziora aurkeztutakoen artetik (...) aholkularitza-enpresak lortu du «baloraziorik onena» —mezuak ez du zehazten prozedura irekia, murriztua edo negoziatua erabili den—, eta enpresa horren giza taldean, «proiektuaren erantzukide» gisa, (...) jauna ageri da, (...ko) kidea ere badena, (...ko) aditu bezala.

Gertakarien kontakizun labur hori eginda, interesdunak galdetzen du ea EPBren iritzian arazorik ba ote dagoen kontratua sinatzeko.

## ERABAKIA

Alderdikeria- edo faboritismo-susmorik batere egon ez dadin, **kontsul-tagileari proposatu zaio ez diezaiola enpresa horri esleitu administrazio-kontratua, aipatutako pertsona bi lekuetan agertzen delako: kontratua eragin duen jarduera-programaren prestaketan zuzenean eta pertsonalki parte hartu duen (...ko) «(...ko) aditu» modura eta, enpresaren eskaintzan, «proiektuko arduradun-kide» modura.**

● **GATAZKA DAGO. KONSULTAGILEARI PROPOSATU ZAIO EZ DIEZAIOLA ENPRESA HORRI ESLEITU ADMINISTRAZIO-KONTRATUA, AIPATUTAKO PERTSONA BI LEKUETAN AGERTZEN DELAKO: KONTRATUA ERAGIN DUEN JARDUERA-PROGRAMAREN PRESTAKETAN ZUZENEAN ETA PERTSONALKI PARTE HARTU DUEN ADITU MODURA ETA, ENPRESAREN ESKAINTZAN, «PROIEKTUKO ARDURADUN-KIDE» MODURA.**

-----

### III

## **Merkataritza-prozesu bateko epai kondenatzailea/Irismenagatiko prozedura bateko erantzukizuna/Kargu publikodun baten inputazioa (6)**

### **GAIA: 4/2015**

Kontsultagileak idazkian dioenez, (...) egunean eman zioten (...) Epaiaren berri, eta egun hori eta hurrengo erabili zituen «abokatuarekin eta beste profesional batzuekin epaiaren norainokoa aztertzeko; izan ere, kontuan hartuta zer-nolako esperientzia duten eta antzeko egoera bat bizi izan dutela, eskatu nien nire izenean ardura zitezela gaiaz eta beren iritzia eman ziezadatela, hurrengo egunean emango baitzen argitara nire izendapena».

Aurrekoari hauxe gehitzen dio: «Egindako kontsultak eta egiaztapenak ikusirik, iruditu zitzaidan gaiak ez zuela egoera hori jakinarazteko adina garrantzi. Eta ez nuen jakinarazi; izan ere, ez baitut esperientziarik horrelako gaietan, hots, profesional gisa garrantzi gutxi eman arren politikari gisa gaur egun beste dimentsio bat hartzen duten gaietan. Garai hartan, ez nintzen gai izan kontu hori aurreikusteko». Alde horretatik, interesdunak onartzen du erabaki okerra hartu zuela, «(...) izan ere (...k) nik baino hobeto balora zezakeen gertaeraren norainokoa eta, hortaz, erabaki informatuago bat har zezakeen nire izendapenari buruz».

Jarraian, bere ibilbide profesionalari buruzko kontakizun labur baten ostean, interesdunak labur-labur kontatzen du zein diren epai hori emateko gertaera garrantzitsuenak. Epai hori, hain zuzen ere, Bilboko (...) epaitegiko epaiaren apelazioan eman zen. Epai horretan, (...) jauna aske uzten da «(...) jardun irregular guztietatik, eta (...) onartzen da».

Hala ere, epaiak errebokatu egin zuen (...k) lehen auzialdian emandako ebazpena eta «(...ko ) aldian desgaituta» egotea ebatzi zuen». Horren harira sortu zen, hain zuzen ere, interesdunak batzorde honi aztertzeko helarazi dion auzia.

## **ERABAKIA**

(...) epaia ez da eman «prozesu penal» baten arloan, ez eta «administrazio-zehapen» baten barruan ere, eta EJKren 15.5 puntuak egi-

tatezko bi kasu horietan soilik ematen du aukera bere aginduen aplikagarritasun subjektiboa eta denborazkoa arautzen duen arau orokorra salbuesteko; edonola ere, salbuespen hori eredugarritasunaren printzipioari lotutako jokabide-jarraibideetan soilik aplikatu daiteke. Horiek horrela, **interesdunak ez zuten zertan aurkeztu bere auzia EPBn**; izan ere, karguan izendatua izan aurretik gertatutako gertaerei buruzkoa baita. EPBk ere ez du zertan auzia sakon aztertu «dagokion gomendioa emateko».

**Interesdunak ez zion duela gutxiko bere ibilbide profesionalaren alderdi jakin baten berri eman (...ri), eta hori ez da zuzentasun eta leialtasunaren eredu; baina, hala ere, horrek ez du EJK hausten.** EJKren aginduak, puntu horri dagokionez, ez daude pentsatuta (...ren) eta (...ren) arteko leialtasun pertsonaleko eta konfiantza politikoko harremanak arautzeko, baizik eta EAeko Administrazio Orokorraren eta Instituzionalaren eta horiei atxikitako erakunde publikoen irudiari eta benetako funtzionamenduari zuzenean eta modu negatiboan kalte egiten dioten erakundeekiko desleialtasunezko jokabideak arautzeko. Interesduna kontsulta hau egitera bultzatu zuten albisteak argitaratu eta egun gutxira, (...k) jendaurrean eta argi eta garbi adierazi zuten interesdunari sostengu pertsonala eta politikoa ematen diola. Hortaz, ez du batere zentzurik EPBk auzi horri buruzko irizpena emateak.

Horrenbestez, (...) epaiaren aurkako kasazio-errekurtsoa jar dezala gomendatzen diogu interesdunari, nahiz eta horrek ez bermatu Auzitegi Gorenak bere alegazioei men egingo diela, hizpide dugun auzia polemikoa baita juridikoki. Baliteke errekurtsio hori ez jartzeko erabakia zuzena izatea idazkian aipatzen duen «irizpide profesionalaren» arabera; baina kargu publikoduna izateagatik bere irudia zaindu eta eredugarria izan behar duen aldetik, ez da onargarria.

● EZ ZEGOEN KONTSULTA EPB-RI EGITEKO BETEBEHARRIK.  
EZ DA URRATU EJK. EPAIAREN AURKAKO KASAZIO-ERREKURTSOA  
JARTZEKO GOMENDIOA EMAN DA.  
-----

**GAIA: 7/2015**

Eusko Jaurlaritzako (...) Saileko (...ko) zuzendariak idazki bat bidali zion Etika Publikorako Batzardeari (EPB) postontzi elektronikora, Etika eta Jokabide Kodearen (EJK) 15.5 puntuan ezarritakoaren babesean. Hona hemen kontsultaren gaia: (...) Auzitegiak (...) zenbakia daraman irismenagatiko itzulketa-prozedura izapidetu du, eta, prozedura horren barruan, jarduera abiarazi duen alderdiak —(...) sindikatuak— bera jotzen du (...) euroko gastuen ordainketa ustez bidegabearen ustezko arduraduntzat.

**ERABAKIA**

1. Sindikatu auzi-jartzaileak (...) interesduna ustezko arduraduntzat jo duen (...) zenbakidun irismenagatiko itzulketa-prozedura ez denez ez «prozesu penala» eta ez «administrazio-zehapena», eta EJKren 15.5 puntuaren arabera horiek direnez goi-kargudunek eta parekatuek kontsulta batzardeari helarazteko beharra ezartzen duten egitatezko bi kasu bakarrak, **aipatutako interesdunak ez du obligaziorik bere kasuaren berri EPB honi emateko**, horrek «egoki iritzitako gomendioak eman ditzan».

Hala eta guztiz ere, **kontsultagileari gomendatzen diogu (...) Auzitegiarekin leialki lankidetzan jarraitzea**, bere eskubideen alde beharrezkotzat jotzen dituen alegazioak aurkeztuz eta bere esku dauden datu eta informazio guztiak emanez, horiek salatutako gertaerak argitzeko eta, hala badagokio, gertaera horietatik erator daitezkeen erantzukizunak zehazteko lagungarriak izan daitezkeen heinean.

**Kontsultagileari eskatzen diogu EPB honi eman diezaiola erabaki honek aztergai duen irismenagatiko itzulketa-prozeduraren bilakaearen berri eta, hala badagokio, amaieraren berri ere bai, batez ere handik beste jurisdikzio batzuetako organoen aldeko egintzak eratorzen badira.**

● EZ ZEGOEN KONTSULTA EPB-RI EGITEKO BETEBEHARRIK. EZ DA URRATU EJK. AUZITEGIAREKIN LANKIDETZAN ARITZEA GOMENDATU ZAIO, ETA ESKATU ZAIO EPB-RI UNEORO EMAN DIEZAIOLA GAIAREN BILAKAERAREN BERRI.

-----

**GAIA: 5/2015**

Interesdunak, (...ko) zuzendariak, Etika eta Jokabide Kodearen (EJK) 15.5 puntuan arautzen duenari erreparatuta, idazki bat igorri zuen Etika Publikorako Batzordearen (EPB) postontzi elektronikora, eta idazki horretan kontsulta bat egiten zuen, (...) Instrukzio Epaitegian tramitatzen ari diren aurretiazko eginbideetan inputatu gisa entzuna izateko jaso duen zitzazioa dela-eta.

Idazki horretan, kontsultagileak adierazten du (...) Saila, «gutxienez» 1995etik, «modu berean» ordaintzen ari dela zerbitzuen ondoriozko kalte-ordainak, berariaz aurreikusita daudenak (...) egoeretarako, eta joan-etorrien gastuak eta mantenu-dietak barne hartzen dituztenak. Garai batean, «Herrizaingo Sailaren barne-arau batzuek» arautzen zituzten kalte-ordain horiek, eta, gaur egun —interesdunak egindako kontaktetaren arabera, betiere—, langileen zerbitzuen ondoriozko kalte-ordainei buruzko (...) Dekretuak. Arau horrek indarrean jarraitzen du gaur egun, haren aurka ez zelako denbora- eta forma-baldintzak bete-tzen zituen errekurtsorik jarri eta hura argitaratu denetik ez delako aldatu edo indargabetu. Haren edukia, bestalde, «negoiazio-mahaian adostu zen».

Sailari 2013. urtean bidali zizkion hainbat idazkitan, eskaera hau egin zion (...) sindikatuak Giza Baliabideen Zuzendaritzari: «ez ordaindu izaera orokorrean (...ri) bidaien eta jatorduen ondoriozko kalte-ordainak». Kontsultagileak hau adierazi du: «ezin izan zen eskaera hori bete, indarrean dagoen arau bat ez betetzea eskatzen zuelako, eta ez delako, gainera, arau haren aurkako errekurtsorik jarri; era berean, bere garaian ez zen errekurtsorik jarri eta ez ziren ezbaian jarri kalte-ordain horiek arautu dituzten arauak eta instrukzioak».

Sailaren erantzuna jaso ondoren, administrazioarekiko auzien jurisdikziora eta Herri Kontuen Epaitegira eraman zuen gaia sindikatuak. Legebiltzarreko talde batzuek ere agertu zuten interesa, 2014. urtean, kalte-ordain horien gainean. Talde mistoko UPyD alderdiak dokumentu bidezko informazioa eskatu zuen, eta talde Popularrak, berriz, idatziz erantzuteko galdera bat egin zuen. Sailak behar bezala eman zien erantzuna bi ekimen horiei; izan ere, kontsultagileak adierazten duenez, «le-



gebiltzarreko taldeek ez dute legebiltzar-ekimen berririk abiarazi gai horren inguruan».

Administrazioarekiko Auzien (...) zenbakiko Epaitegiak ebatzi zuen administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, eta emandako epaiak ezetsi egin zuen erreklamazioa, errekurtsoa jarri zuen sindikatuak legitimazio aktiborik ez zuelako; hala, berretsi egin zuen errekurritutako ebazpena. **Hala ere, partikularren testigantzak instrukzio-epaitegi eskudunera eramatea erabaki zuen epaiak**, oharpen hauetan oinarrituz: «kasu honetan, instrukzio-epaitegi eskudunean instrukzio-eginbideak abiaraztea gomentatzen duten elementu batzuk ikusten dira, eta eginbide horien xedea izan behar du izaera penaleko arau-urratzerik egin den egiaztatzea, eta, zehazki, argitzea zer kontzeptu zehatzetan ordaindu diren ordaindutako diru-zenbatekoak, zer pertsonak jaso dituzten zenbateko horiek, ordaindu diren zenbatekoak bikoiztu ote diren, lan pertsonalaren etekinak ezkutatatu ote zaizkion Ogasunari (dieta horiek nominetan jaso ez direlako) eta funts horiek erabili ondoren bi urte igaro direnean batere kontrolik egin ote den».

**Auzia (...) zenbakiko Instrukzio Epaitegiari esleitu zitzaion, eta aurretiazko eginbideak abiaraztea** eta 2012., 2013. eta 2014. urteetan ordaindu ziren kalte-ordainei buruzko dokumentazioa eskatzea erabaki zuen organo horrek. Horren harira, interesdunak adierazi du 2013ko urtarrilean izendatu zutela zuzendari. Gerora, sailak hasiera batean igorri zion dokumentazioa osatzeko eskatu zuen epaitegiko epaileak, eta, azkenik, kontsultagilea deklaratzera deitzea erabaki du; eta zitazio hori da, hain justu, gai hau Etika Publikorako Batzorde honetara igorri izanaren arrazoia.

Sindikatuak Herri Kontuen Epaitegian jarritako salaketari dagokionez, EPB honi kontsulta egiteko idazkian ikusten da salaketa hura izan zela estatuak fiskalizaziorako daukan goi-organo horrek (...) aurretiazko jardunbideak abiarazteko erabili zuen oinarria. Jardunbide horietan, instrukziogileak behin-behineko likidazioaren akta egin zuen (...) datan, eta honako hau adierazi zuen akta hartan: «salatu diren dietak araukoak dira, prozedura baten mende daude, eta justifikatu dira kalte-ordaina jaso dezaketen kontzeptuak, lanbide-identifikazioaren zenbakia lotuta dauden jasotzaileak, kontzeptuak eta zenbatekoak». Hortaz, «salatutako gertakariak ez dute kontabilitate-erantzukizunik eragiten, ez baita

ikusten Eusko Jaurlaritzaren funtsei kalte erreal, benetako eta banaka-garririk egin zaienik».

## ERABAKIA

Interesdunak Justizia Administrazioari laguntzen jarraitu behar du, eta inputatu gisa deitua izan den aurretiazko eginbideak direla-eta instrukzio-epaitegiak unean-unean eskatzen dion guztia bete behar du.

Inputazioa zergatik egin den ikusita eta erabaki honetan aztertu diren alderdiak aintzat hartuta, kontsultagileak bere kargua betetzen jarrai dezake, harik eta auzitegi eskudunak ahozko judizioa abiaraztea erabakiz gero, erabaki horren autoa ematen duen arte.

Hauxe da EPB honen gomendioa: prozedura horren barruan egiten ari diren jardun judizialean ahozko judizioa abiaraztea erabakitzen bada, kargu publikoduna kargutik kentzea kautelazko neurri gisa, EJKren 15.5 puntuan eta erabaki honen 12. puntuan adierazten den bezala.

● EZ DA URRATU EJK. AURREKARI BIHURTU DA: AHOZKO JUDIZIOA ABIARAZIZ GERO, ERASANDAKO KARGU PUBLIKODUNA KARGUTIK KENTZEA GOMENDATU DA, KAUTELAZKO NEURRI GISA.

## GAIA: 6/2015

Interesdunak, mezu elektronikoko baten bidez, kontsulta egin zion Etika Publikorako Batzordeari, Etika eta Jokabide Kodearen 15.5 puntuan araututakoa aintzat hartuta, (...) aurretiazko eginbideetan inputatu gisa entzuna izateko jaso duen zitazioari buruzko irizpena eman dezan. Hau adierazten du idatzian:

«... lurralde-antolamenduaren eta ingurumenaren aurkako delitu baten ustezko erantzule gisa inputatu eta deitua izateko prozesu-egoera gerta liteke, formazko titulu bat dagoelako horretarako: tokiko zabortegi batean gertakariak ustez gertatu zirenean ni nintzela (...). Hori ikusita, idazki hau

bidaltzen diot Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokor eta Instituzionaleko Etika Publikorako Batzardeari, modu formal batean eskatzeko nire egoerari eta nire jardun pertsonal eta instituzionalari buruzko adierazpen bat egin dezala Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokor eta Instituzionalaren Etika eta Jokabide Kodeak arautzen duenari erreparatuta, eta, horrenbestez, organo horrek, harengana jotzen baitut errespetuz eta prebentziozko nahiz bermezko izaeraz, adierazpen bat egin dezala, kontuan izanda nire ustez garrantzizkoak diren gertakariak eta oharpenak, niri eta nire karguari buruz egoki irizten duen erabakia hartzeko eta, berebat, zehazteko ea kodearekiko dudan lotura urratu ote duan jarraian azalduko diren gertakarien ondorioz, horiek baitira, nire aburuan, idatzi honen hartzaile den batzardeak hartu behar duen erabakiaren xede...».

## ERABAKIA

Interesdunak Justizia Administrazioari laguntzen jarraitu behar du, eta inputatu gisa entzuna izateko deitua izan den aurretiazko eginbideak direla-eta (...k) unean-unean eskatzen dion guztia bete behar du.

Inputazioa zergatik egin den ikusita eta erabaki honetan aztertu diren alderdiak aintzat hartuta, kontsultagileak bere kargua betetzen jarri dezake, harik eta epaile edo auzitegi eskudunak ahozko judizioa abiaraztea erabakiz gero, erabaki horren autoa ematen duen arte.

Hauxe da EPB honen gomendioa: prozedura horren barruan egiten ari diren jardun judizialean ahozko judizioa abiaraztea erabakitzen bada, kargu publikoduna kargutik kentzea kautelazko neurri gisa, EJKren 15.5 puntuan eta erabaki honen 5. puntuan adierazten den bezala.

● EZ DA URRATU EJK. AHOZKO JUDIZIOA ABIARAZIZ GERO, ERASANDAKO KARGU PUBLIKODUNA KARGUTIK KENTZEA GOMENDATU DA, KAUTELAZKO NEURRI GISA.

**GAIA: 13/2015**

2015eko azaroaren 10ean, Etika Publikorako Batzordearen (EPB) Idazkaritzara posta elektronikoz igorritako mezu batean, (...) jaunak, Eusko Jaurlaritzako (...k), irizpena eskatu zion organo honi, instrukzio-epaitegian tramitatzen ari diren aurretiazko eginbideetan inputatu gisa entzuna izateko jaso duen zitazioaren gainean.

Jasotako mezua oso laburra zen, eta aipatutako epaitegiak «(...) ize-neko kasuan inputatu gisa deklaratzeko» jakinarazpena bidali ziola adierazten zion EPB honi interesdunak. Gogorarazten zuen, halaber, prozeduraren xede den gaia «kontsultara eraman zela Etika Publikorako Batzordera, epaitegian salaketa jarri zenean», eta —jarraitzen du— kontsultari buruzko irizpena «aurtengo (...n)» hartutako erabakia-  
ren bidez eman zela.

Horri guztiari eransten dio kargua «uzteko» erabakia hartu zuela «berria ezagutu bezain pronto», «harik eta gaia epaitegietan argitu arte». Nolanahi ere, ohartarazten du «Jaurlaritzari lotuta jarraitzen duela (...) gisa».

**ERABAKIA**

Interesdunak Justizia Administrazioari laguntzen jarraitu behar du, eta inputatu gisa deklaratzeko deitua izan den aurretiazko eginbideak dirrela-eta instrukzio-epaitegiak unean-unean eskatzen dion guztia bete behar du.

Inputazioa zergatik egin den ikusita eta erabaki honetan aztertu diren alderdiak aintzat hartuta, **kontsultagileak bere kargua betetzen jarri dezake, harik eta epaile edo auzitegi eskudunak ahozko judizioa abiaraztea erabakiz gero, erabaki horren autoa ematen duen arte.**

Hauxe da EPB honen gomendioa: prozedura horren barruan egiten ari diren jardun judizialetan ahozko judizioa abiaraztea erabakitzen bada, kargu

publikoduna kargutik kentzea kautelazko neurri gisa, EJKren 15.5 puntuan eta erabaki honen 5. puntuan adierazten den bezala.

● EZ DA URRATU EJK. AHOZKO JUDIZIOA ABIARAZIZ GERO,  
ERASANDAKO KARGU PUBLIKODUNA KARGUTIK KENTZEA GOMENDATU DA,  
KAUTELAZKO NEURRI GISA.

---

## GAIA: 9/2015

Interesdunak Etika Publikorako Batzardeari (EPB) kontsulta bat egin dio posta elektronikoz, instrukzio-epaitegian izapidetzen ari diren aurretiazko eginbideetan (...k) inputatu gisa deklaratu ondoren pertsona hori (...ko) zuzendari izendatzearen argitalpen ofiziala gaitzat hartuta.

### ERABAKIA

(...) interesdunak, (...ko) Gobernu Kontseiluko lehendakariak, **ez du EJK urratzen (...) andrea (...)ko zuzendari izendatzeko xedapena EHAAan argitaratzea bultzatzen badu, hura inputatu modura deklaratzera deitua izan den prozedura judiziala ahozko judizioaren irekierari dagokion fasera iristen ez den bitartean.**

Edozein kasutan, erabaki hau (...ri) helarazi beharko zaio, bertan adierazitakoak eragina izan baitezake (...ko) zuzendari kargua betetzeari dagokionez eduki ditzakeen uste eta eskubideetan.

Azkenean (...) andrea zuzendari izendatzeko xedapena EHAAan argitaratzea erabakitzen badu, andre hori EJKri atxiki beharko zaio, kode horretan ezartzen diren epe eta baldintzetan.

EJKrekiko atxikimendua formalizatuta, (...k) ez du errepikatu beharko EJK-ko 15.5 puntuan eskatzen den kontsulta, erabaki honetan aztertzen den kontsulta eragin duten prozesu-inguruabarrak aldatzen ez diren bitartean. Inputazioa zergatik egin den ikusita eta erabaki honetan aztertu diren alderdiak aintzat hartuta, bere kargua betetzen jarri dezake, harik eta epaile edo auzitegi eskudunak ahozko judizioa abiaraztea erabakiz gero, erabaki horren autoa ematen duen arte.

**Hauxe da EPB honen gomendioa: prozedura horren barruan egiten ari diren jardun judizialean ahozko judizioa abiaraztea erabakitzen bada, kargu publikoduna kargutik kentzea kautelazko neurri gisa, EJKren 15.5 puntuan adierazten den bezala.**

● EZ DA URRATU EJK. AHOZKO JUDIZIOA ABIARAZIZ GERO, ERASANDAKO KARGU PUBLIKODUNA KARGUTIK KENTZEA GOMENDATU DA, KAUTELAZKO NEURRI GISA.

## IV

### **Goi-kargudun baten egoera, orain duen erantzukizunarekin zerikusirik ez duen gaiti dagokionez (1)**

#### **GAIA: 8/2015**

Eusko Jaurlaritzako Herri Administrazio eta Justizia Saileko Erakunde Harremanetarako sailburuordeak idazki bat erregistratu zuen Etika Publikorako Batzordearen (EPB) idazkaritzan, Eusko Legebiltzarraren osoko bilkurak hartutako erabaki bat jasota uzteko. Erabaki haren bidez, zera eskatu zitzaion gobernuari: «Etika Publikorako Batzordeari jakinaraz diezaiola (...ko) zuzendari kudeatzaileak (...) dela-eta gaur egun duen egoera».

Ganberako bi legebiltzar-taldek —Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeek— sinatutako erdibideko zuzenketa baten emaitza da erabakia; izan ere, hurrenez hurren Mistoa-UPyD eta Euskal Sozialistak taldeek aurkeztutako legez besteko bi proposamen elkarrekin eztabaidatu ondoren egin baitzuten erdibideko zuzenketa hori.

### **ERABAKIA**

**Ez onartzea** (...) merkataritza-sozietateko zuzendariaren egoerari buruzko kontsulta, **pertsona hori ez delako Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta haien Interes Gatazkak arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legean aipatzen diren kargu publikodunen artean sartzen, ez dagoelako Etika eta Jokabide Kodea aplikatu behar zaien pertsonen artean eta ez duelako kode horretarako atxikipenik formalizatu,**

ez dagoelako sartuta Eusko Jaurlaritzaren dekretu bidez onartutako kargu publikodunen katalogoan, eta gertakariak (...) jauna (...) sozietate publikoko zuzendari kudeatzaile izendatu aurretik eta EPB hau eratu aurretik gertatu zirelako.

- KONTSULTA EZ DA ONARTU, KARGU PUBLIKODUN HORRI EZ ZAIOLAKO APLIKATU BEHAR ETIKA ETA JOKABIDE KODEA (EJK).
-





# 6

## Ondorioak eta gomendioak

EJKren 16.3 puntuak hau egiteko ahalmena ematen dio EPB honi: «Etika eta Jokabide Kodean egin beharreko aldaketak proposatzea Gobernu Kontseiluari». Ahalmen hori erabiliz, eta memoria honetan egin ditugun gogoetak aintzat hartuta, gomendio hauek egiten dizkiogu Eusko Jaurlaritzaren Gobernu Kontseiluari, errespetu guztiarekin, aztertu eta, egoki iritziz gero, praktikan jartzeko beharrezkoak diren neurriak har ditzan:

### AURRENEKOA

EJKren 15.5 puntuaren unean uneko aldaketa egitea, Prozedura Kriminaren Legean orain dela gutxi egindako aldaketetara egokitzeke.

Aurreko epigrafean adierazi dugun bezala, 2015ean erregistratu dira EPB-k ezagutu dituen inputazio judizialen aurreneko kasuak. EJK eta bertako jarraibideak kontuan hartuta inputazio horiei aurre egiteko moduari buruzko iritziz luze-zabala lehendabiziko aldiz emateko aukera izan genuenean (aipatutako 5/2015 erabakian, hain zuzen ere), nabarmendu genuen aldaketa garrantzitsu bat gertatzen ari zela zigor-arloko prozedurari buruzko legedian, eta aldaketa horrek garrantzi handia zuela kargu publikodunak zigor-prozeduretan inputatuta egotearen larritasunaren aurrean gizartean nagusitu beharreko pertzepzioaren ikuspuntu-tik.

Hain zuzen ere hauxe esan genuen orduan:

« Gai horren inguruan, bestalde, premiazkoa da garrantzi handiko datu bat nabarmentzea, derrigorrean jaso beharrekoa erabaki honetan. Gaur egun zuzenketen fasean dago, Diputatuen Kongresuan, *Prozedura Kriminalaren Legea prozesu-bermeak indartu eta teknologia-ikerikuntzako neurriak arautzearen aldatzeko Lege Organikoa* (Gorte Nagusien Aldizkari Ofiziala, Diputatuen Kongresua, X. legegintzaldia, A seriea, 2015eko martxoaren 20koa, 139-1 zenbakia), eta oraindik eman gabea den xedapen horren helburua da, haren zioen azalpenean adierazten den moduan, «gaur egungo egoerara egokitzea Prozedura Kriminalaren Legea, eta, bereziki, legeak maiz eta terminologiaren alorrean zehatza izan gabe erabiltzen dituen esapide jakin batzuk kentzea, hala nola «inputatua» eta «erruztatua», hitz horiek erabiltzen baitira susmo hutsengatik ikertuak diren pertsonak izendatzeko (sic), oraindik zantzu nahikorik izan gabe pertsona horiei ikuspegi judizialek eta modu formalean egozteko zigorgarria den ekintzaren bat egin izana». Hizkuntza Juridikoaren Argitasunerako Batzordeak eskatu zuen aldaketa hori egiteko, eta hau zen eskaera horren xedea: «esapide horien konnotazio negatiboak eta estigmatizatzeak alde batera uztea eta prozesu penaleko faseetan gertatzen den egiazko egoerara egokitzea hizkuntza, arrazoi horiek bultzatu behar baikaituzte inputatu eta erruztatu hitzen ordeztu beste egokiago batzuk jartzera, nola diren ikertua eta auzipetua». Eta hitz horiek aldatzea proposatzen du, hain justu, lege-proiektuaren bigarren xedapen gehigarriak».

Horren harian, beste hau gehitu genuen:

« Bi gogoeta hauek sorrarazten dizkigu, berehala, Gorte Nagusietan lege-erreformarako proiektu hori izate hutsak:

- a) Proiektuak aurrera egiten baldin badu eta Gorte Nagusiek behin betiko onartuko duten testuak bere egiten baldin badu Gobernuak Diputatuen Kongresuari bidalitako proiektuan aurreikusten den terminologia-berrikuspen hori, aldaketa horrek arautzen dituen alderdietara egokitu beharko da EJKren 15. artikuluko 5. puntua, eta argi eta garbi

arautu beharko da EPBri kontsultatzeko betebeharra iker-tuei edo auzipetuei —proiektuak darabilen terminologia erabiltzearren— ote dagokien.

- b) Proiektua tramitazio-fasean dagoen bitartean, ez dirudi bi-dezkoa alde batera uztea legegilea serio pentsatzen ari dela «inputatu» hitza «prozesu penaleko faseetan gertatzen den egiazko egoerara» egokitzeko aukera, «konnotazio negatibo eta estigmatizatzaile» ugari dituen alde-tik, helburutzat baitu aurretiazko kondena ia saihestezinik ez ikusaraztea; izan ere, prozesu penaleko fase horretan «susmo hutsengatik ikertuak diren pertsonak daude, eta fase horretan zantzu nahikorik ez dago oraindik pertsona horiei ikuspegi judizialek eta modu formalean egozteko zigorgarria den ekintzaren bat egin izana».

Bada, proiektua Gorte Nagusietan arrakastaz gauzatzea lortu zen —lehen aipatutako Prozedura Kriminalaren Legea prozesu-bermeak indartu eta teknologia-iker-kuntzako neurriak arautzearren aldatzeko urriaren 5eko 3/2015 Lege Organikoa onartzearekin bukatu zen parlamentuko tramitazioa—, eta memoria hau da leku egokiena Eusko Jaurilaritzari gomendatzeko EJKren 15.5 puntua alda dezala, «inputatu» dion lekuan «ikertu» jarriz. Aipatutako arauarekin koherenteak izateko gomendatzen diogu hori.

## BIGARRENA

EJKren testu bategina prestatu eta argitaratzea, kode hori erabili behar dutenek bertsio kontsolidatu bat izan dezaten bertan agintzen dena hobeto ezagutu eta betetzeko.

Azken memorian agerian utzi genuen azalpen-, prestakuntza- eta hedapen-lan handia egin behar zela Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko goi-kargudunak eta parekatuak etika-kode honetara ohitu daitezzen, ez baitugu ahaztu behar kode zorrotz eta berria dela eta haien agintaldien segimendua eta ebaluazioa egiteko bereziki diseinatuta da- goen mekanismo bat daukala.

EJK dokumentu ireki eta malgua denez, erraz eguneratu daiteke eta erraz sar dakizkioke aldaketak. Baina hori traba izan daiteke haren aplikazio-ere-

muko pertsonen une bakoitzean aplikatu behar duten testua zein den jakiteko. Horregatik, Jaurlaritzari gomendatzen diogu aurreko gomendioari kasu egin eta han eskatzen den aldaketa egitea erabakitzen badu, testu kontsolidatu bat onartu eta argitara dezala eta EPB honek aurreko memorian eta oraingo honetan egindako proposamenak bildu ditzala bertan, EJK erabili behar duten pertsonen bertsio eguneratua izan eta kodea hobeto ezagutu eta bete dezaten.

# Etika Publikoko Batzordeak aztertutako kasuak (2015ean)

ETIKA PUBLIKOKO BATZORDEAK AZTERTUTAKO KASUAK (2015ean)	Or.	Gaiaren- zenbakia	GAI MOTAK				
			I	II	III	IV	
<b>EZ ZEN ONARTU</b> SALAKETA EZ ZEGOEN KONTSULTA EPB-RI EGITEKO BETEBEHARRIK ETIKA KODEAREN URRAKETA DAGO. ONDORIOA: KARGU-UZTEA ABSTENTZIA EDU UKO EGITIA GOMENDATZEN DA. BESTELA EJK-REN URRAKETA GERTA DATEKE ETIKA KODEAREN URRAKETArik EZ	29	1/2015	●				Go-kargudun baten egoera, orain duen erantzukizunarekin zerkusirik ez duen gai bati dagokionez
	30	2/2015	●				
	31	3/2015		●			
	37	4/2015			●		
	40	5/2015			●		
	42	6/2015			●		
	39	7/2015			●		
	46	8/2015				●	
	45	9/2015			●		
	32	10/2015		●			
	34	11/2015		●			
	35	12/2015		●			
	44	13/2015			●		